Aldizkaria

aek
24.korrika
Euskara
gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

AEKrekin
KORRIKArekin
Euskararekin

Jarraitu zuzenean:
naiz.eus | irratia.naiz.eus

Euskara gara
naiz:

Guztiok herri bat gara. Euskara gara. Aditu Korrikaren deiadarra. Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra.

Piztu da Korrikaren garra!

Atharratzetik Bilbora · 2026ko martxoaren 19tik 29ra

AURKIBIDEA

Mezua 4
Ibilbidea 6
Omendua 15
KORRIKA materiala 16
Korrika Laguntzailea 17
KORRIKA hasiera. Atharratze (26/03/19) 18
Abestia 20
Korrika Munduan 22
KORRIKA APP 24
Korrika Kulturala 26
KORRIKA bukaera. Bilbo (26/03/29) 27

Txiki Polit
PENTSIOA
TABERNA
JATETXEA
Musika Plaza z/g 20.800 Zarautz
Tel.: 943 83 53 57

INDARlan
obras y eventos

INTZA

nekatur
Euskadiko landa ostatuen elkartea
www.nekatur.net

Mezua

Euskara-herria naiz, bizitzeko era, izateko modua.
Suaren antzekoa naiz: beti bera, beti berri.

Ongi etorri nire etxera, gure etxera.
Iraganetik gaur egunera, ateak beti zabalik ditugun babesgunera.

Zu eta ni euskara gara. Bat gara.
Miloi bat euskaldun gara, eta gehiago izango gara.
Biziberritzen den komunitate aske eta irekia gara,
elkarrekin sortuko dugun etorkizuna.

Alderik alde zeharkatuko dugun Euskal Herria gara.
Eman hitza, eta eman pauso, erdigunean jartzeko aniztasuna eta elkar zaintzea.
Eman pausoa, eta aktibatu, lehen lerroan nahi dugu helduen euskalduntzea.
Guztiok gara ezinbesteko. Pertsona bakoitzak du balioa; hiztun bakoitzak, garrantzia.
Euskaltegian izena eman dugunok, euskara lehen hizkuntza dugunok, kanpotik etorri garenok,
euskaraz, Euskal Herrian, ikasi eta bizi nahi dugunok...
Guztiok herri bat gara. Euskara gara.

Aditu Korrikaren deiadarra.
Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra.
Piztu da Korrikaren garra!...

» **Euskalduna bazara, egizu zure hautua: informa zaitez euskaraz.**

Irakurri eta babestu BERRIA

Urteko ekarpena	Gazteen* ekarpena	Ekarpen berezia
100€	30€	120€
(0,27 euro egunean)	(*) 30 urtetik beherakoak	aukeratu zenbatekoa (urtean 120 € edo gehiago)

943-30 43 45 • *Berria.eus/komunitatea*

ES

Soy el país del euskera, una forma de vivir, una manera de ser.
Me asemejo al fuego: siempre el mismo, siempre nuevo.

Bienvenido/a a mi casa, a nuestra casa.
Del pasado al presente, al refugio donde siempre hallamos las puertas abiertas.
Tú y yo somos euskera. Somos una.
Somos un millón de vascoparlantes, y seremos más.
Somos una comunidad libre y abierta que se revitaliza, un futuro por crear juntos/as.

Somos esa misma Euskal Herria que vamos a recorrer de esquina a esquina.
Da la palabra, y da el paso, para situar en el centro la diversidad y el cuidado mutuo.
Da el paso y actívate, queremos la euskaldunización de adultos/as en primera línea.
Todos/as somos imprescindibles. Cada persona tiene valor; cada hablante, importancia.
Los/as que nos hemos apuntado al euskaltegi, quienes tenemos al euskera como primera lengua, aquellos/as que hemos venido de fuera,
en euskera, en Euskal Herria, los/as que queremos aprender y vivir...
Todos/as somos un pueblo.
Somos euskera.

Escucha la llamada de Korrika.
Seamos vibración, seamos fuerza.
¡Ha prendido la llama de Korrika!...

FR

Je suis le peuple de la langue basque, un mode de vie, une manière d'être.
Je suis comme le feu : toujours le même, toujours nouveau.

Bienvenue chez moi, chez nous.
Du passé au présent, dans notre refuge aux portes toujours ouvertes.
Toi et moi, nous sommes la langue basque.
Nous sommes un.
Nous sommes un million de basques, et nous serons davantage.
Nous sommes une communauté libre et ouverte qui se régénère, l'avenir que nous construirons ensemble.

Nous sommes le Pays Basque que nous allons parcourir de long en large.
Donne le mot, et donne le pas, pour mettre en avant la diversité et la bienveillance mutuelle.
Donne le pas, et engage-toi, nous voulons que l'apprentissage du basque aux adultes soit une priorité.
Nous sommes tou.te.s indispensables.
Chaque personne a de la valeur; chaque locuteur.trice de l'importance. Nous qui nous sommes inscrit.e.s à l'Euskaltegi, nous pour qui le basque est la langue première, nous qui venons d'ailleurs,
nous qui voulons apprendre et vivre en basque, ici, au Pays Basque...
Nous sommes tou.te.s un seul peuple.
Nous sommes la langue basque.

Écoutez l'appel de KORRIKA.
Soyons le frisson, soyons la force.
La flamme de KORRIKA s'est allumé!

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra
Bilbo
Santurtzi
Getxo
Mungia
Zalla
Barakaldo
Trapagaran
Gernika-Lumo
Derio
Basauri
Artziniega
Igorre
Durango
Amurrio
Laudio
Murgia
Langraiz Oka
Argantzon
Trebiñu
GASTEIZ
Ermua
Eibar
Legutio
Arrasate
Leintz Gatzaga
Azkoitia
Urretxu
Ordizia
Dulantzi
Araia
Agurain
Altsasu
Ziordia
Maeztu
Kanpezu
Oion
Viana
Ondarroa
Deba
Zarautz
DONOSTIA
Usurbil
Andoain
Hernani
Oiartzun
Irun
Orereta
Hendaia
Donibane Lohizune
Biarritz
BAIONA
Lehuntze
Uztaritze
Hazparne
Senpere
Itsasu
Azkaine
Bera
Zugarramurdi
Donapaleu
MAULE
Atharratze
DONIBANE GARAZI
Arnegi
Doneztebe
Elizondo
Betelu
Lekunberri
Madotz
Irurtzun
Larraintzar
IRUÑEA
Orreaga
Garralda
Abaurrepea
Ezkaroze
Urtarotze
Erronkari
Nabaskoitze
Burgi
Irunberri
Zangoza
Lizarra
Gares
Olleta
Lodosa
Lerin
Tafalla
Andosilla
Azagra
Kaparrotsu
Tutera

MARTXOAK 19 OSTEGUNA

ATHARRATZE	**15:30**
Zalgize	15:58
Maule	17:00
Donapaleu	19:33
Hazparne	22:48
Lekorne	23:42

MARTXOAK 20 OSTIRALA

Bidarrai	01:09
Donibane Garazi	03:03
Arnegi	03:57
Orreaga	05:58
Garralda	07:05
Abaurrepea	08:08
Ezkaroze	09:59
Itzaltzu	10:32
Uztarotze	12:16
Erronkari	13:29
Burgi	14:40
Nabaskoitze	16:25
Domeñu	18:03
Irunberri	18:50
Zangoza	20:34
Oibar	21:34

MARTXOAK 21 LARUNBATA

Olleta	00:07
Puiu	01:19
Tafalla	01:46
Erriberri	02:40
Kaparrotsu	04:48
Valtierra	06:49
Arguedas	07:21
Tutera	08:57
Cintruenigo	11:07
Corella	11:44
Castejon	13:10
Cadreita	14:05
Milagro	14:53
Azagra	16:19
San Adrian	16:50
Andosilla	17:11
Carcar	18:03
Lodosa	19:01
Carcar	20:21
Lerin	21:45
Larraga	23:10

MARTXOAK 22 IGANDEA

Mendigorria	00:11
Gares	00:49
Obanos	01:15
Eneritz	01:48
Noain	03:28
Eskirotz	03:51
Zizur Nagusia	04:22
Barañain	04:47
Berriozar	05:56
Markalain	07:00
Eguarats	07:32
Gelbentzu	08:09
Larraintzar	08:30
Gerendiain	09:06
Erripa	09:37
Ostitz	10:03
Atarrabia	11:10

ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL
Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

komunikazio grafikoa
Lankopi
comunicación gráfica
Colón de Larreátegui, 16 • BILBAO
944 230 700 • www.lankopi.eus

Antsoain	11:35
Iruñea	11:48
Burlata	12:07
Uharte	12:20
Sarriguren	12:42
Mutiloa	13:15
Iruñea	13:23
Arazuri	16:49
Etxauri	17:35
Jaitz	18:56
Riezu	19:49
Lizarra	21:17
Aiegi	21:47
Urantzia	23:03

MARTXOAK 23 ASTELEHENA

Torres del Rio	00:04
Viana	01:37
Moreda Araba	02:06
Oion	02:25
Lekora	03:20
Lapoblación	04:03
Genebilla	04:27
Kanpezu	05:27
Maeztu	06:49
Azazeta	07:41
Egileta	08:18
Dulantzi	08:48
Dallo	09:29
Zuhatzu Donemiliaga	10:05
Agurain	10:25
Erdoñana	11:02
Zalduondo	11:22
Araia	11:46
Egino	12:38
Ziordia	13:01
Olazti	13:11
Altsasu	13:39
Urdiain	14:12
Bakaiku	14:39
Etxarri Aranatz	14:52
Lakuntza	15:48
Uharte Arakil	16:11

Hiriberri	17:03
Irurtzun	17:43
Madotz	18:37
Astitz	19:03
Alli	19:23
Lekunberri	19:36
Lezaeta	20:34
Betelu	20:47
Arribe	20:54
Atallu	21:00
Lizartza	21:33
Ibarra	22:54
Amasa-Villabona	23:41

MARTXOAK 24 ASTEARTEA

Andoain	00:13
Urnieta	00:56
Hernani	01:20
Astigarraga	02:04
Oiartzun	02:38
Irun	03:44
Bera	05:56
Lesaka	06:33
Igantzi	07:03
Sunbilla	08:46
Doneztebe	09:11
Narbarte	09:30
Oronoz	09:42
Arraioz	10:06
Irurita	10:19
Gartzain	10:30
Elizondo	10:43
Urdazubi	12:55
Zugarramurdi	13:27
Sara	14:01
Senpere	15:16
Ezpeleta	16:27
Itsasu	17:00
Kanbo	17:31
Larresoro	17:56
Uztaritze	18:15
Lehuntze	20:04
Baiona	21:44
Angelu	22:31
Biarritz	23:05
Arbona	00:09

MARTXOAK 25 ASTEAZKENA

Bidarte	00:40
Donibane Lohizune	01:37
Ziburu	01:46
Azkaine	02:43
Urruña	03:49
Hendaia	04:46
Irun	04:57
Hondarribia	05: 17
Lezo	06:39
Donostia	07:43
Pasai Antxo	08:25
Orereta	08:35
Donostia	09:20
Lasarte-Oria	12:54
Usurbil	13:37
Orio	14:47
Zarautz	15:38
Getaria	16:36
Zumaia	17:09
Itziar	17:59
Deba	18:57
Mutriku	19:25
Ondarroa	20:18
Markina-Xemein	21:23
Lekeitio	23:59

ALKIZABAL
ALQUILAMOS SOLUCIONES

itsasmuseum

bertako
igogailuak | bertako.eus

MARTXOAK 26 OSTEGUNA

Gernika-lumo	03:07
Bermeo	04:57
Bakio	06:01
Mungia	07:21
Plentzia	09:39
Sopela	10:18
Getxo	10:53
Leioa	12:04
Erandio	12:40
Barakaldo	13:23
Sestao	14:32
Portugalete	15:03
Santurtzi	15:24
Trapagaran	16:15
Abanto	17:23
Zalla	19:51
Balmaseda	21:44
Artziniega	23:13

MARTXOAK 27 OSTIRALA

Arespalditza	00:17
Amurrio	00:47
Bergantza	01:58
Orozko	02:14
Laudio	03:21
Arakaldo	04:14
Arrankudiaga	04:20
Arrigorriaga	05:06
Basauri	05:35
Galdakao	06:59
Usansolo	07:51
Lemoa	08:20
Igorre	08:47
Zeanuri	10:06
Gopegi	12:49
Murgia	13:47
Izarra	14:40
Zuhatzu Kuartango	15:52
Langraiz Oka	17:19
Argantzon	18:05
Añastro	18:37
Trebiñu	19:03
Zaldiaran mendatea	20:08

Gasteiz (Postas kalea, 2)	22:57
Gasteiz (Barratxi kalea, 35)	00:00

MARTXOAK 28 LARUNBATA

Durana	00:13
Legutio	01:26
Leintz-Gatzaga	02:17
Eskoriatza	02:51
Aretxabaleta	03:30
Arrasate	03:59
Oñati	04:46
Bergara	06:19
Antzuola	07:07
Urretxu	07:44
Zumarraga	08:04
Ormaiztegi	09:04
Segura	09:59
Olabarria	10:36
Beasain	11:18
Ordizia	11:56
Legorreta	12:38
Alegia	13:19
Tolosa	13:47
Errezil	15:02
Azpeitia	15:52
Zestoa	17:05
Azkoitia	18:33
Elgoibar	19:26
Soraluze	20:36
Eibar	21:11
Ermua	22:00
Berriz	23:12
Elorrio	23:36

MARTXOAK 29 IGANDEA

Durango	01:31
Zornotza	03:38
Derio	06:16
Bilbo (Enekuri)	07:22
BILBO (AREATZA)	**12:04**

GORRICHO
SISTEMAS DE DESCANSO
www.gorricho.com

Yanguas y Miranda, 19 • 948 24 79 63 • Iruñea
Sancho el Fuerte, 32 • 948 17 10 24 • Iruñea
Av. Villava, 2 • 948 12 46 63 • Iruñea
Pol. Ind. Mutilva Baja, C/A, 17 • 948 29 09 52 • Mutiloa

cikautxo
S.COOP.

KAUTXUZ ETA PLASTIKOZ EGINDAKO
SOLUZIO BERRITZAILEAK

SORMENERAKO GAITASUNA, EKIMENA,
KONPROMISOA ETA ARDURA

CIKAUTXON ETORKIZUNA
PERTSONEK ERAIKITZEN DUTE

• AUTOMOBILGINTZA
• ETXETRESNA ELEKTRIKOA
• MATERIAL ELASTIKOAK

Cikautxo S.Coop.
Magdalena Auzoa, 2-B
E-48710 BERRIATUA

Tel.: +34 946 133 000
Fax.: +34 946 133 002
cikautxo@cikautxo.com

www.cikautxo.com

Omendua

24. KORRIKAn Errigora elkartea omendu dugu. Korrikak aitortza egin gura dio euskaratik, euskararentzat eta euskaraz lanean ari den ekimen herritarrari, egin duen eta egiten ari den lanarengatik, baita babesa adierazi eta aurrera jarraitzeko bultzada eragin ere.

Ekimen herritarra da Errigora, Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes ditu. Nafarroa hegoaldea du ardatz, eta euskara ofiziala ez den zonan eragiten du, bertako berezko elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararentzat eta euskaraz. Korrikak bezala, euskal herritar asko mobilizatzen ditu, ea lanean dihardu euskararen aldeko ekintzaileekin. Euskal Herri osoan da ezaguna, eta bat egiten du Korrikaren balioekin. Guztion arazo komuniei bertatik bertara erantzuten saiatzen da, baita etorkizuneko erronkei erantzuna ematen ere, izan larrialdi linguistikoa, klimatikoa edo/eta nortasunaren ingurukoa.

Errigoraren omenaldi ekitaldia
Durangoko Plateruenan egin zion Korrikak gorazarre Errigorari joan den urtarrilaren 31an. Bertan, Irati Abiok eta Adriana Urmenetak jaso zuten Errigoraren izenean 24. KORRIKAren oroigarria. Ekitaldian, Orburutxo eta Zainzuriñe panpinak aurkeztu ziren lehendabizikoz, Errigoraren aldarria Korrikan zehar zabalduko duten ordezkariak. Ondoren, bazkaria antolatu genuen Errigorako bazkideekin batera.

GARBITU
INDUSTRIA GARBIKARIAK
euskal@garbitu.net
628 474 267

IGELTSEROTZA ORO HAR
Zure Obren eta Eraberritze-lanen kudeaketa integrala
ARDATZ Igeltserotza S.L.
Tel.: 659 124 474 · 665 579 235
E-posta: ardatzreformas@gmail.com
Helbidea: 31600 BURLATA (Nafarroa)
www. ardatz.jimdo.com

KORRIKA materiala

Korrika barrutik, petoa kanpotik!

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere euskararen ekimen erraldoiari atxikimendua erakuts diezaiokezu arropa eta osagarrien bidez; gainera, horiek erostea arras erraza da. Bestalde, 24. KORRIKAtik lasterketak iraun bitartean petoa janztera gonbidatu nahi zaitugu: bizkarrekoa ez baita arropa soilik, Korrikaren parte izatea ere bada. Eskuratu zeurea, agortu baino lehen!

Horrez gain, aurreko edizioetan legez, kamiseta teknikoak, kotoizkoak, kiroljertseak (sudaderak) eta osagarriak daude. Nobedadeen artean, galtzerdiak daude, azkar asko saltzen ari direnak.

Horretarako, hainbat bide dituzu:

Korrikaren denda fisikoak
Bilbon (Artekale 39, Zazpikaleak), ***Donostian*** (Esterlines 5, Alde Zaharra), ***Gasteizen*** (Aldabe kalea 7), ***Iruñean*** (San Anton kalea 24) eta ***Beasainen*** (Kale Nagusia 12). Ordutegiak www.korrika.eus atarian.

Korrika online-denda
www.denda.korrika.eus

AEKren euskaltegietan

Gorosti S. Coop
LORAZAINTZA
Lorategien diseinu eta gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta inausketa
Bidasoa Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 · 68 124 68 98
gorosti@gorostiscl.com

Korrika Laguntzailea

Babestu KORRIKA, izan Laguntzailea!

Laguntzaileek 15 euroko ekarpena egiten diote KORRIKAri bi urterik behin. Trukean edizioko pina eta txartel birtuala (Korrika app-an eskuragarri) jasotzen dituzte. Gainera, hainbat abantaila izaten dituzte Laguntzaile izateagatik. Horrez gain, astero-astero aldatzen diren 20 produktutik gorako zozketetan parte hartzen dute.

ABANTAILAK:

- ***AEK EUSKALTEGIETAN*** % 5eko beherapena, 2025-2026 ikasturteko ikastaroetan, 2026ko urtarriletik aurrera egindako matrikuletan (matrikula bat laguntzaileko eta beste deskontuekin ez metagarria. HABEk eta Euskarabideak sustatutako ikastaroetan ez aplikagarria).
- ***AEKko BARNETEGIETAKO*** aurrematrikuletan % 10eko deskontua (aurrematrikula-kanpainak irauten duen bitartean. Beste deskontuekin ez metagarria).
- ***AIZU!*** aldizkarian, 2026an egiten diren harpidetza berriek % 30eko deskontua.
- ***KORRIKAko ONLINE-DENDAn*** % 5eko deskontua.
- ***KORRIKA KULTURAL***eko ekitaldietan deskontuak (zenbatekoa ekitaldiaren arabera izango da).
- Edizio honetan ***KENKARI FISKALAK*** lor ditzakezu egindako ekarpen ekonomikoagatik. *Formularioa www.korrika.eus webgunean eskuragarri.
- ***BERRIA:*** deskontua harpidetzan. Asteburuko BERRIA egunkarirako harpidetza, sei hilerako: 55€.
- ***BILBOATS:*** % 30eko deskontua sarreretan. Deskontu-kodea: *KORRIKA2024* Tiketak webgunean edota Pio Baroja Plazako dendan eros daitezke.
- ***Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen museoetan salneurri murriztua:*** La Encartada Fabrika-museoa (Balmaseda), El Pobaleko Burdinola (Muskiz), Muñatones Gaztelua (Muskiz), Bizkaiko Arkeologia Museoa (Bilbo), Txakolin museoa-Txakolingunea (Bakio), Arrantzaleen Museoa (Bermeo), Euskal Herria Museoa (Gernika-Lumo), Santimamiñeko koba (Kortezubi) eta Omako basoa (Kortezubi). (Iraupena: 2026/01/01-2026/12/31).
- ***IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA:*** % 50eko deskontua bisita gidatua egiteko.
- ***MUSEUM CEMENTO REZOLA:*** % 50eko deskontua bisita gidatua egiteko.
- ***ZUMALAKARREGI MUSEOA:*** % 50eko deskontua bisita gidatua egiteko.

KORRIKA hasiera

Martxoaren 19an, Atharratzek hartuko du euskaltzaleon hitzordua

Korrikaren magia berriz piztuko da, 24. KORRIKAren lehen pausoekin. Etorri hasierako emozioa bizitzera, korrika egitera eta euskararen aldeko olatu erraldoiari bultzada ematera.

Atharratzek hartuko du 24. KORRIKAren hasiera. Korrikaren abiapuntutzat aukeratzearen balio sinbolikoaz mintzatu zen Ane Elordi, Korrikaren arduradun nagusia, Naiz Irratian egindako elkarrizketan: «1985etik Atharratzek ez du Korrikarik ikusi. Hau da, laugarren Korrika bertatik abiatu zen, eta, ordutik, ez bagara bertatik abiatzen ez gara igarotzen, Euskal Herriak dituen ezaugarri geografikoak tarteko».

Lau gune nagusi izango dira: herriko plaza, pilota-plaza, merkatu estalia eta haurren xokoa.

Egunari hasiera emango diote txikienek bertako Korrika Txikiarekin, goizeko hamarretan, lehen gunean. Ondoren, gaiteroek alaituko dute plaza, eta, eguerdian, kale-antzerkiaren txanda etorriko da.

Merkatu estaliak, bestalde, bazkari herrikoia hartuko du. Haurren xokoan, besteak beste, Tor magoa eta puzgarriak egongo dira.

EITB, Naiz, Hamaika Telebista, Kanaldude, Berria, Euskal Irratiak eta Goienak emango dute ekitaldi nazionalaren berri zuzenean, hasten denetik (15:00etan), 24. KORRIKA abiatu arte (15:30ean).

Festa lekualdatu egingo da ostean, eta arratsaldeko bostetan Maulera egingo du. Han, txarangak, kontzertuak eta Dja egongo dira.

Atharratzen elkartuko gara, ez hutsik egin!

Deia · Diario de Noticias · Noticias de Gipuzkoa · Diario de Noticias

Abestia

'Xiberutikan Mendebaldera' kantak jarriko dio doinua 24. KORRIKAri

Ane Elordi Korrika arduradunak eta Pello Reparaz kantaren egileak abestia eta bideoklipa aurkeztu zuten Agoizko (Nafarroa Garaia) Kultur Etxean pasa den abenduan.

Pello Reparazek sortu ditu kantaren musika zein letrak, eta bideokliparen zuzendaritza-lanaz ere arduratu da. Reparazekin batera, Maixux Zugarramurdi eta Erramun Martikorena abeslariek hartu dute parte, baita NAIZEN elkarteak ere, koroetan. Bideoklipari dagokionez, nabarmentzekoa da plano-sekuentzian grabatuta dagoela. Aurten, lehenengo aldiz, AEK osoak prozesu demokratiko baten bitartez aukeratu du nori egin kantaren enkargua.

Reparazen hitzetan, Korrikaren abestia sinatzea bere ibilbide artistikoko "erantzukizun eta poz handienetako bat" izan da. "Ez da enkargu hutsa: kantaren bidez euskarak eta Korrikak niri eman didatenaren zati bat itzultzea da", aipatu du artistak.

sasoi
www.sasoi.eus
Leku-eder, 16 · 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 | info@sasoi.eus

Bidea elkarrekin eginez.
AUTOBUSES LA UNION
100 urte

Xiberutikan Mendebaldera

(ZETAK, Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena)

Herensugeren itzala
Santa-Grazitikan
Zarrakaztelura

Eta Errigoraren auzolan
eredua
Eskutik eskura
Hori ere bagara

Sorgin baten azken kanta
Itoizko kaleetan

Zer gara euskara bera ez
bagara
Maixux eta Erramunen
herrian

Maitasun eskutitz baten
bide luzea
Xiberutikan
mendebaldera
Junkeraren fandango
berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia
lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho
gaztetan
Gailur berrietan

Basurdearen aztarna gara
Elorretatikan
Agurainaldera

Larruz eraikitako milaka
etxola
Dajlatik Gazara
Hor da gure gogoa

Ezkerraldeko AEK
Saretuz lurra

Artzai gazte bat kontu
zaharretan
Bariñako Bidane
Baskaran

Maitasun eskutitz baten
bide luzea
Xiberutikan
mendebaldera
Junkeraren fandango
berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia
lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho
gaztetan
Gailur berrietan

Lauburu bat gâteau
batean baino
Euskara gara

Ilargirik gabe mareak
gora
Nola bestela?
Nola bestela?

Maitasun eskutitz baten
bide luzea
Xiberutikan
mendebaldera
Junkeraren fandango
berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia
lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho
gaztetan

Anko® conservas artesanas
www.anko.es
P.I. Las Navas, Cl Vía Láctea 4
31515 CADREITA
Tfn.: 948 83 61 10
Fax: 948 98 04 02
www.facebook.com/ankosl
anko@anko.es
anko.eus

24.korrika aek Munduan

Euskararen aldeko lasterketa, mugarik gabe

Euskarak ez du mugarik, eta horren adibiderik ederrenetakoa da Korrika Munduan ekimena. Euskal Herritik harago, munduko txoko askotan antolatzen diren Korrikek helburu bera dute: euskara ikusaraztea, euskal komunitatea aktibatzea eta hizkuntzaren aldeko aldarria plazara ateratzea, kilometroz kilometro.

Zer da Korrika Munduan?

Korrika Munduan Euskal Herritik kanpo antolatzen diren Korrika herrikoien multzoa da, bertako euskal etxeek, euskara-ikasleek, -irakasleek eta laguntzaileek sustatuak. Formatu txikikoak izan arren, esanahi handiko ekimenak dira: euskararen aldeko mezua mundura zabaltzen dute, eta diasporako euskaldunak saretu. Herrialde bakoitzean bere modura eratzen da: ibilbide sinbolikoak, lekukoa eskuz esku eramatea, ekitaldi kulturalak, musika, mintzaldiak eta topaketak... Baina guzti-guztiek partekatzen dute oinarri bera: euskara erdigunean jartzea.

Diasporatik, euskarari bultzada Munduan zehar milaka pertsona ari dira euskara ikasten eta erabiltzen. Korrika Munduan ekimenak indartu egiten du komunitate hori, ikusgarritasuna emanda eta elkartzeko aitzakia paregabea eskainita. Askotan, Korrika Munduan urteko hitzordu garrantzitsuena bihurtzen da bertako euskaltzaleentzat.

Gainera, ekimen horiek zubi-lana egiten dute: Euskal Herria eta munduko euskal komunitateak lotzen dituzte, eta sentimendu partekatua elikatu. Lekukoa eramateak sinbolikoki adierazten du hori: **hizkuntza bat, herriz herri ez ezik, herrialdez herrialde ere pasatzen da.**

Herrialde askotan, mezu bakarra Azken urteotan Korrika Munduan ekimenak hainbat herrialdetan egin dira: Europan, Amerikan, Asian eta Ozeanian. Hiri handietan zein herri txikiagoetan, euskararen aldeko lasterketek bertako kaleak hartu dituzte, eta sarri bertako jendearen jakin-mina piztu.

Horrek guztiak euskararen nazioarteko irudia indartzen du, hizkuntza bizia, komunitate aktiboa eta etorkizunera begirakoa dela erakusteko.

Korrikaren espiritua, mundu osora

Korrika Munduan ez da ekitaldi soil bat; esperientzia kolektiboa da. Parte hartzen dutenek argi dute: kilometro gutxi batzuk besterik ez badira ere, emozioa, konpromisoa eta festa handiak dira. Korrikaren espiritua bere horretan mantentzen da, tokian tokiko ukituaz.

AEKrentzat eta Korrikarentzat, Korrika Munduan funtsezko zutabea da: euskararen aldeko mugimendua globala dela erakusten du, eta hizkuntza-komunitatearen indarra azaleratzen du.

Bat egin Korrika Munduan-ekin

Euskal Herritik kanpo bizi bazara, edo diasporako komunitate baten parte bazara, baduzu Korrika Munduan antolatzeko edo parte hartzeko aukera. Kilometro bakoitzak balio du, urrats bakoitzak mezua zabaltzen duelako: euskara bizirik dago eta munduan barrena dabil.
Korrika Munduan: euskarak korrika egiten du, mugarik gabe.

KORRIKA APP

Aplikazio bat baino askoz gehiago

Korrikaren gaineko informazio guztia, eskura: albisteak, azken uneko berriak, ibilbidea, mapa, lekuko-hartzeen bilatzailea, zuzenekoa, bideo-kronikak, Korrikaren unean uneko kokapena... eta doan!

Korrikaren jarraipen osatuena, erreminta bakarrean.Gure doako aplikazioak (IOS eta Android sistementzat), egun, karreraren jarraipen osatuena egiteko aukera zabala eskaintzen dizu.

- **Zuzenekoa:** 24 orduko zuzenekoa, etenik gabekoa. Konektatu Korrikara, zauden tokian zaudela.
- **Geolokalizazioa:** furgonetako geolokalizazioaren bidez, une oro jakingo duzu non dabilen Korrika, eta garaiz edo atzerapenez datorren.
- **Bilatzailea:** lekuko-hartze guztien zerrenda, herriak eta hiriburuak. Kontsultatu nahi duzun parametroa.
- **Jakinarazpenak:** jakinarazpenak aktibatuta, azken uneko albisteen eta aldaketen berri izango duzu.
- **Bideo-kronikak:** Korrikak irauten duen 11 egunetan, egun bakoitzeko jarduna laburbiltzen duen bideo-kronika jasoko duzu iluntzean, "KORRIKA klik-klak! Izenpean. Horien bidez, ERRIGORAk lasterketa bitartean martxan jarriko dituen zozketetan parte hartu ahal izango duzu.
- **Korrika Laguntzaileentzat gune pribatua:** aplikazioaren bidez, txartel birtuala izango duzu, eta gune pribatu horretan, astero zer zozkatzen den jakin eta irabazle izan zaren egiaztatu ahal izango duzu.



IRUÑEAN HIRIERAZ

MUCHO QUE HABLAR

IRUÑEKO UDALA KORRIKAREKIN BAT

NORMALIZAZIO LINGUISTIKORAKO LEHEN UDAL PLANA OSATZEKO PARTE-HARTZE SAIOAK	SESIONES PARTICIPATIVAS PARA EL PRIMER PLAN MUNICIPAL DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA
AURKEZPEN SAIOA 2026.02.11 18:00-19:30	SESIÓN DE PRESENTACIÓN
ARLOKAKO DIAGNOSTIKOA 2026.02.26 18:00-20:00	DIAGNÓSTICO SECTORIAL
DIAGNOSTIKO OROKORRA 2026.03.31 18:00-20:00	DIAGNÓSTICO GENERAL
PLANARI PROPOSAMENAK 2026.04.23 18:00-20:00	PROPUESTAS AL PLAN
ONDORIOEN AURKEZPENA 2026.05.20 18:00-20:00	PRESENTACIÓN DE CONCLUSIONES
EUSKARAREN ARO BERRIA ELKARREKIN IDAZTEN ARI GARA, EKARRI ZURE HITZA	ESTAMOS ESCRIBIENDO LA NUEVA ERA DEL EUSKERA, TRAE TU VOZ

CIVIVOX POMPELO

KONTZILIAZIO ZERBITZUA EGONGO DA · HABRÁ SERVICIO DE CONCILIACIÓN

pamplona iruña · Ayuntamiento de Pamplona · Iruñeko Udala

24 korrika Euskara gara

24.korrika aek
Kulturala

KAKA komedia ganberro eta probokatzailea, 24. KORRIKAren ekitaldi kultural nagusia

Euskal kulturaren oholtzan, kaka-mokordo bat agertu da. Kaka azaleratu da eta egoeraren analisia egin behar da. Nork egin du? Noiztik dago hor? Zer irudikatzen du? Eta orain, zer egin kaka honekin? Noren ardura da? Nori tokatzen zaio marroi hau argitzea? Garbitzea?

Kakak kaka dakar, eta pentsatzen jarrita... Mundua nolakoa litzateke, bakoitza bere kakaren jabe egingo balitz? Norbanako, kolektibo edo herri gisa batzen gaituen baina ezkutatzen dugun horren guztiaren azaleratze-festa da Kaka.

Hain tabua den gai hau aitzakiatzat hartuta, beste hainbat tabu eta konplexuz hitz egiten duen antzezlana izango da KAKA. Komedia honetan, ikusle oro sentituko da islatuta, edozein pertsonak izan dezakeen onarpen beharraren ertzak modu intimo, ganberro, jostari bezain probokatzailean agerian jarriko dira.

FITXA TEKNIKOA

Interpreteak: Iñigo Aranbarri (Mikel Laskurainen ordezkoa), Ainhoa Aierbe, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala.
Ekoizpena: Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala.
Testua: Kepa Errasti.
Eszena zuzendaritza: Espe Lopez.
Eszenografia: Ikerne Gimenez.
Soinua: Ander Mugika.

Eta amaiera-jaiak Bilbon egingo du eztanda!

Martxoaren 29an, Bilbora iritsiko da 24. KORRIKA eguerdian. Hainbat gune, paella-jana erraldoia, kontzertuak, animazioak, bertsolariak, azoka... milaka eta milaka euskaltzale hartzeko egitarau zabala ari gara osatzen.

San Nikolas guneak emango dio hasiera jaiari, lekukoaren ongietorriarekin, hamabietatik ordu bata bitartean, eta ekitaldi nazionalarekin. Bertan irakurriko da 11 egunetan zehar, eskuz esku ibilia izango den lekukoaren mezua, eta horren idazketa noren ardura izan den ezagutuko dugu.

Goizetik, Zazpikaleetan giro alaia izango da nagusi hainbat animaziorekin: erraldoien kalejira, joaldunak, Korrika kantari, txistulariak eta txarangak.

Arriagan, jateko gunea ezarriko da, eta Areatzan ere bai; bertan, food-truck-ak eta talogileak egongo dira.
Areatzako kaia, bestalde, kontzertuen gunea izango da: arratsaldeko 14:30etik 21:30era kontzertuak egongo dira, ia bata bestearen jarraian.

Amaitzeko, Plaza Barrian, Korrika Munduan-en gunea izango da: bertan KORRIKA ahizpek (*Ar Redadeg*, *La Passem* eta *Correllengua*) euren materiala saltzeko aukera izango dute, eta haiekin loturiko ikus-entzunezkoak izango dira, besteak beste.

Etor zaitez KORRIKAren aldeko jai erraldoira, eta erakutsi euskara garela!

Mendia Optika
www.mendiaoptika.com
Gasteiz
Virgen Blanca plaza · 945 23 24 48
Olagibel 33, Los Herran bidegurutzea · 945 25 40 84

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan**

errigora

ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA

errigora.eus

otsailak 26-martxoak 18